

Esp. Zkia.- z/g
E.E.- 2025-00348**320/2025 ALKATETZA DEKRETUA:**

Larrabetzuko Udaletxean, 2025ko dagonilaren 6an.

OINARRIA: 2025eko zezeilaren 14an BAOean 2025 ekitaldirako Larrabetzuko Udal Aurrekontu Orokorraren behin betiko onarpena argitaratu egin zen. Horretan Larrabetzuko herrigintzarako Olaso Dorrea Fundazioa (Telesforo Monzon), G-20076741 IFK zenbakidunaren, aldeko diru-laguntza zuzen nominatibo bat jasotzen da aurrekontuaren aurrekontu partida konkretuan (463-48100). Hau horrela fundazioak 2025eko garagarriaren 23an udal sarrera erregistroan E202502481 inskripzio zenbakiarekin diru-laguntzaren eskaria aurkeztu zuen.

OINARRIA: 2025eko dagonilaren 6ko datarekin udal kontu-hartzaileak txostena egin zuen.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.a) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, **HAU EBATZI DOT:**

LEHENENGOA.- Olaso Dorrea Fundazioari (IFK: G-20076741); 3.000,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 463-48100 aurrekontuaren aurrekontu-partidea zordunduta. Diru-laguntzaren %100 ordaindu egingo da hitzarmen hau sinatzerako orduan. Zenbateko horrek elkarteak espedientean aurreikusi duen jarduera finantzatzen du.

BIGARRENA.- Diru-laguntza bateragarria da berorren xedea betetzeko onuradunak lor zezakeen besteren batekin.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen xedea betetzeko jarduerak 2025 urtean zehar gauzatu behar dira, honen betearazpenerako azkeneko eguna 2025eko abenduaren 31a izanik.

LAUGARRENA.- Diru-laguntzaren justifikazioa egiteko epea 2026ko zezeilaren 28a izango da. Jarduera guztien gauzatzea, aurreikusitako helburuak lortzea eta proiektuan adierazitakoa justifikatu beharko da.

Diru-laguntzaren justifikazioa diru-laguntzei buruzko zemendiaren 17ko 38/2003 Legearen 30. Artikuluak jasotzen duenari jarraituz egin beharko da. Horretarako diru-sarrera eta gastuen kontu justifikazioa aurkeztu beharko da. Egindako jarduerak adierazi beharko dira, horien kostua, lortutako diru-sarrerak eta gastuak adieraziz.

Gastuen akreditazioa gauzatuko da fakturen bitartez eta froga izaera duten eta trafiko juridiko merkantileko edo administrazio eragingarritasuna duten bestelako dokumentuen bitartez

Justifikazioa hurrengo dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da:

- Diru-sarrera eta gastuen kontu justifikatiboa.
- Gastuen akreditazioa, klausula honetan adierazitako moduan.
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin betebeharretan eguneraturik egotearen ziurtagiriak.
- Beste Administrazio Publikoetatik diru-laguntza batzuk jaso izanaren edo jaso ez izanaren inguruko erantzukizunpeko adierazpena.
- Ezarritako helburuak bete izan direnaren erantzukizunpeko adierazpena.

Justifikazio-kontua honi erantsitako aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa betetzen ez duenean, diru-laguntzaren zenbatekoa proportzio berdinean gutxitu egingo da.

BOSTGARRENA.- Ebazpen honetan ezartzen diren betebeharrak ez betetzea diru-laguntzaren diru-bueltatze prozedura gauzatuko du eta dagozkion zehapenak jartzea eragingo du, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legean xedatzen duenari jarraituz.

SEIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinarazi.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.